

OSATEK S.A.-KO ZUZENDARI GERENTEAREN XEDAPENA, OSATEK S.A.-N DESTINOA DUEN ERRADIOLOGIAKO MEDIKU ESPEZIALISTAREN KATEGORIAN LAN-KONTRATUKO LANGILE FINKO IZAERA MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN BIDEZ ESKURATZEKO HAUTAKETA-PROZESUKO EPAIMAHAIA IZENDATZEKO DENA.

OSATEKeko zuzendari kudeatzailearen 2022ko abenduaren 13ko Xedapenaren bidez, lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea onartu zen, eta lan kontratudun finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak arautu ziren, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdiaren bidez.

OSATEKeko zuzendari kudeatzailearen 2022ko abenduaren 14ko Xedapenaren bidez, merezimendu-lehiaketa bidez Osatek, S.A.ko erradiologiako mediku espezialista kategorian lan-kontratudun finko izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onartu ziren.

Oinarri orokorrak onartzen dituen Xedapenaren 11. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak hautaprobak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horregatik, ematen zaizkidan eskumenen arabera, honako hau

XEDATU DUT

Bat.- Osatek, S.A.n destinoa duen erradiologiako mediku espezialistaren kategorian lan-kontratuko langile finko izaera merezimendu-lehiaketa bidez eskuratzeko hautaketa-prozesuko epaimahaia izendatu eta eratzea.

Bi.- Hautaketa-organoa

Hautaketa-organoa honako pertsona hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Carmen Romera de la Fuente

Bokalak: Guillermo Fernández Cantón
Cristina Gervás Wells.
Oscar Casado Verdugo.

Idazkaria: Laura Orozco Castaño.

Hiru.- Betearazpena

Xedapen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean. Jakinaraz bekie interesdunei.

Lau.- Argitalpena

Xedapen hori OSATEKen webgunean argitaratuko da: www.osakidetza.euskadi.eus/servicios-osatek/-/oferta-de-empleo-2022 / eta Campo & Ochandiano enpresaren webgunean: www.campo-ochandiano.com



Bilbon, 2023ko martxoaren 23an
Zuzendari Kudeatzailea

Data/fecha: 2023 MAR. 23

Xedapen-erregistroa / Registro de disposiciones Josu Xabier Llano Hernaiz

ZK / N°: 9/2023